mundukide
kooperazio kooperatiboa
*cooperación cooperativa*

Zarugalde, 30
20500 Arrasate-Mondragón (gipuzkoa)
Tel.: 943 772 010
e-mail: mundukide@mundukide.org

www.mundukide.org

40 zk. Abendua *Diciembre* 2018

# Buletina mundukide







## Pertsona guztiok bilatzen dugu gauza bera: gure lanaren eta gure bizitzaren jabe izatea

### Kolabora ezazu proiektu honekin

**ADI! Mozambikeko nekazarien aldeko kanpaina aurkeztu berri dugu LABORAL Kutxako bulego guztietan.**

Ekarpena egiteko guneak:

1. Laboral KUTXAko bulegoetan.
2. **www.laboralkutxa.com/eu/solidaritatea/mundukide** helbidean.
3. Transferentzia bitartez: ES54 3035 0001 56 0010122192.

**¡Atención! Ya hemos presentado en las oficinas de LABORAL Kutxa la campaña de colaboración para los campesinas/os de Mozambique.**

Puntos para hacer la aportación:

1. Oficinas de Laboral Kutxa.
2. En la dirección: **www.laboralkutxa.com/eu/solidaritatea/mundukide**
3. Mediante transferencia: ES54 3035 0001 56 0010122192.




mundukide
kooperazio kooperatiboa
*cooperación cooperativa*

LABORAL kutxa

## Humanity at Music



**Miren Amuriza Plaza**
Bertsolaria

Harmoniaren, erritmoaren, melodiaren arauen araberako hots-konbinaketa omen musika; akordeoijole bat kale kantoian. Ordea, letren, hitzen, esaldien eroale ere izan daiteke eta gisa horretara baliatu nahi lituzke Mundukidek Humanity at music proiektuaren uhinak.

Iparraldearen eta hegoaldearen arteko egiturazko desberdintasunen erantzule garen neurrian, hegoaldeko hainbat herrialdetan dihardugu kooperatibagintzan oinarrituriko lankidetza sustatzen (Ekuadorren, Kolonbian, Brasilen, Mozanbiken…) eta egitasmo horietako askoren sorreran esku hartu arren, tokian tokiko proiektu autokudeatuak garatzea lehenesten dugu.

Finean, parekidetasunaren alde jardutera konprometitutako elkartea da Mundukide; arraza, klase edota genero bereizkeriarik gabeko gizarte justuago baten eraikuntzan diharduena, izan inguru hurbilean zein haragoko eremuetan. Oholtza handietan lekurik ez duten ahots eta doinuetan fokoa jartzen saiatzen den fundazioa, hala nola, kale kantoiko akordeoijolearengan.




## Zu bezalako pertsonak behar ditu Mundukidek Brasilen lan egiteko

Lankidetza kooperatiboaren onurak ahalik eta herrialde gehienetara zabaltzea da Mundukideren helburua. Makina bat pertsona izan dira beren esperientzia kooperatiboa partekatuz Brasilgo programan lanean ibili direnak. Oraintxe duzu aukera informatzeko eta pausoa emateko.





















**INFORMAZIO GEHIAGO:**
www.mundukide.org




## Laburrak

Neida, Mozambikeko Cabo Delgado probintzian koordinatzaile lanetan aritu da 3 urtean eta adiorik esan ez badu ere, atsedenalditxoa hartzeko momentua iritsi zaio emakume galiziarrari. Eskerrik asko, Neida, eta nahi duzun arte!

**Neida Villa Lago**

Excoordinadora del programa Montepuez



Nekazaritza ingeniaria eta galiziarra izango da, baita ere, Neida ordezkatuko duen kooperantea. Raulek Cabo Delgado probintziako nekazarien garapen sozioekonomikoa indartzeko lanetan jardungo du Mundukideko beste 3 kooperanterekin batera. Bemvindo, Raul!



**Raúl Valdés Martín**

Nuevo coordinador del programa Montepuez

Asturiarra eta ikasketaz nekazal ingeniaria den emakume hau, Mozambike programako Mandimba distrituko koordinatzailea izango da datozen 2 urteetan. Mandimbako proiektua martxan jartzeko ardura izango du asturiarrak, eta lankidetza alorrean bere lehen esperientzia izango da. Bemvinda, Silvia!

**Silvia Gonzalez Grana**

Nueva coordinadora del programa Mandimba



## Mozambike



- **Introducción de nuevos cultivos con mercados de gran volumen.**
- **Introducción de nuevas herramientas de gestión de stocks y sistemas de medición con tecnología satelital.**
- **Introducción de nuevos modelos de acompañamientos agrícolas a través de acuerdos con asociaciones locales.**
- **Puesta en marcha de 10 sub-oficinas con personal técnico local.**

*Agricultoras de Balama trabajando sus huertas*

Tras 18 años de experiencia en el norte de Mozambique, el programa trabaja para que sean cada vez más las personas beneficiadas en las provincias de Niassa y Cabo Delgado, a través del aumento de **capacidades de la población local para generar renta que contribuya al desarrollo equitativo y sostenible.**

La estrategia para 2021 define cómo lograr un aumento de la actividad productivo-comercial de los/as participantes equivalente a 10.000 puestos de trabajo rurales. En ese camino el objetivo para 2019 es alcanzar los 5.395 empleos equivalentes para que las familias de agricultores puedan ser dueñas de su trabajo y de sus vidas.

## Kolonbia



*Reunión de Mundukide con miembros de la cooperativa COEMPRENDER*

### COEMPRENDER Pastoko hondakin birziklatzaileen komunitatea

Urteko azken hiruhilabetean abiatu da Kolonbiako gizarte ekonomia sendotzeko lankidetza programa berria. Identifikazio lanetan ondorioztatu bezala, herrialdearen hego-ekialdean kokatzen den Nariño departamentuan eman zaio hasiera, hain zuen ere, Pasto hiriko hondakin birziklatzaileek osatzen duten COEMPRENDER komunitate baztertu eta estigmatizatuarekin.



**Asier Elorza Ugarte, koordinatzailea:** *"Nariño, Kolonbiako garapen txikieneko departamenduen artean dago, eta bertan, Pastoko birziklatzaileen bizi baldintzak hobetzeko Coemprender kooperatiba sendotzen lagunduko dugu. Horretarako, 456 emakume eta 119 gizonekin lan egingo dugu beren bizi baldintzak hobetzen laguntzeko, prestakuntza, aholkularitza eta saretze lanak indartuz. Ondorioz, kooperatibaren gaitasuna handitzea espero dugu eta baita gizon-emakumeen arteko diru sarreren ezberdintasuna gutxitzea ere. Coemprenderrekin egindako lanaz gain, Nariño departamentuaren eskualde garapen sozio-ekonomikoa eragiteko plangintza orokorrago baten alde lanean jarraituko dugu."*

## Brasil

El objetivo del programa de Brasil es impulsar el desarrollo socio-económico de las familias asentadas y acampadas del Movimiento de Trabajadores sin Tierra - MST, a través de la mejora de la gestión de sus cooperativas y de la capacitación del personal técnico en los estados de Ceará, Río Grande do Sul, Sergipe, Paraná, Bahia, Sta Catarina y Sao Paulo.



*Encuentro Nacional de las cooperativas del MST en Sao Paulo celebrado en diciembre*



**Jose Luis Lejardi Bernaola, coordinador:** *"La dirección del MST pone toda su confianza en Mundukide y trata de coordinar y facilitar los planes de acción que proponemos a través del programa. En estos momentos, estamos trabajando para mejorar el modelo de acompañamiento a las cooperativas de la Reforma Agraria a través de la implantación de un modelo propio de acompañamiento y asistencia a las cooperativas. A su vez organizamos Cursos y Seminarios sobre "Técnico/a en Gestión de Cooperativas" para capacitar personas que lideren la gestión de las cooperativas. Otra labor importante de cara a las cooperativas es mejorar la comercialización a través de acompañamiento a almacenes de distribución y a las oficinas nacionales para ventas y al sector exportación de cada cooperativa. Otra labor esencial consiste en tejer redes de intercooperación entre las cooperativas del mismo sector y hacer acompañamiento a los grupos gestores."*

## Afrikako programa berria

### Identifikazioa

2019. urteko lehenengo hiruhilekoan erabakiko du Mundukidek Afrikako zein herrialdetan hasiko den ESKUALDE GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOa helburu izango duen programa berriarekin. Mozambikeko lankidetza programaren bitartez bildutako esperientzia bigarren herrialde Afrikar batekin partekatu nahi da eta horretarako Mundukidek egiten dakien lana ondoen egokituko den lekua aukeratu nahi da.



*Reunión con un grupo de agricultores/as en Senegal*



**Adrián Lamas Montes, koordinatzailea:** *"2018an Afrikan programa berri bat ezartzeko identifikazio lanekin hasi gara. Horretarako, duela 6 urte egindako lanetik abiatuta, eta beharrak, jasangarritasuna eta finantzazio aukerak kontuan hartuta, Senegal, Etiopia eta Malawi aukeratu ditugu.*
*Azaro eta Abenduan egindako bisitak aztertu eta herrialde bat aukeratu behar dugu 2019an. Hortik aurrera, herrialde horretan kokapena, bazkideak eta lan esparrua zehaztu beharko ditugu. Lan horietan lagunduko duen pertsona bat kontratatu nahi dugu, Mundukide herrialde berrian legeztatu eta lanean hasteko".*